

Egile eskubideak eta Creative Commons lizentzia

Gradu Amaierako Lana (GrAL) originala da eta, ondorioz, Jabetza Intelektualeko Legearen menpe dago¹. Horrek esan nahi du lanaren jabetza intelektuala **egileari** dagokiola (kasu honetan, ikasleari), berak sortu duelako (1. art.). Bi motatako egile eskubideak daude: **moralak** eta **ustiapenezkoak**. Eskubide **moralak** lagaezinak eta besterenezinak dira, ez dute iraungitze datarik eta egileak dituen honako eskubide hauei egiten diete erreferentzia:

- i. Bere lana hedatuko den edo ez, eta zein modutan hedatuko den erabakitzea.
- ii. Bere lanaren egile izaeraren aitortpena eskatzea.
- iii. Lanaren osotasuna errespetatzea dadila eskatzea (14.-16. art.)

Ustiapen eskubideak, aldiz, egileak bere lana erreproduzitzeko, banatzeko, publikoki zabaltzeko edo bertatik beste lan eratorri batzuk sortzeko (adib., itzulpenak²) dituen eskubideak dira.

GrALaren kasuan, ikasleei beren lana **Creative Commons (CC)** lizentzia baten bidez babestea gomendatzen diegu. Mota honetako lizentziek beren lanei dagozkien zein eskubide lagatzen dituzten zehaztea ahalbidetzen dute, baita lana zabaltzea eta/edo sarbide irekia (OA, ingelesez Open Access) duten gordailu digitaletan gordetzea ere. Sarbide irekiak esan nahi du edozein pertsonak obra originalen testuak irakurri, deskargatu, kopiatu, banatu, inprimatu, bilatu edo estekatu ditzakeela, baita beste edozein helburu legitimorekin erabili ere, inolako oztopo ekonomiko, legal edo teknikorik gabe. Beraz, literatura akademikoa doan eskuratzeko modu irekia da.

Sarbide irekian (OA) egileek beren lanaren osotasuna kontrolatzen dute eta aipatuak eta beren lanarengatik aitortuak izateko eskubidea dute.

CC lizentziek oinarrizko lau elementu dituzte:

- **Aitortu (Attribution) (by):** Egilea adierazi beharko da lizentziak baimentzen duen lanaren edozein ustiapenetan.
- **Ez Komertziala (Non commercial) (nc):** Lanak erabilera ez komertzialak bakarrik eduki ahal izango ditu.
- **Lan Eratorririk Gabe (No Derivate Works) (nd):** Lana ustiatzeko baimenak ez du lan eratorri bat sortzeko eraldaketarik barne hartzen.
- **Partekatu Berdin (Share alike) (sa):** Baimendutako ustiapenak lan eratorriak sortzea barne hartzen du, betiere, hedatzean lizentzia berdinarekin jarraitzen badute.

¹ 1/1996 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 12koa, Jabetza Intelektualeko Legearen Testu Bategina eta uztailaren 7ko 23/2006 Legea onartzen dituenak. Azken horrek aurreko legea aldatzen edo berritzen du, gure zuzenbidea erkidegoko gainerako zuzentzarauekin bateratzeko.

² Lan bat argitaletxe baten bidez argitaratzean, ustiapen eskubideak argitaletxeari lagatzen zaizkio, copyright-aren bidez.

Elementu hauek hainbat erataraz nahas daitezke, lizentzia desberdinak eskuratzeko. Hauek dira eskura daitezkeen sei lizentzia motak:



Aitortu (by): Obraren edozein ustiapen baimentzen da, merkataritza helburua dutenak barne; baita hori erabiliz beste obra batzuk egitea eta horiek banatzea ere, inolako mugarik gabe.



Aitortu – Ez Komertziala (by-nc): Jatorrizko obra erabiliz beste obra batzuk sor daitezke, baldin eta merkataritza helbururik ez badute. Jatorrizko obra ezin da merkataritza helburuetarako ere erabili.



Aitortu – Ez Komertziala – Partekatu Berdin (by-nc-sa): Jatorrizko obra edo hori erabiliz sortutako beste obra batzuk ezin dira merkataritza helburuekin erabili; sortutako obren banaketa jatorrizko obra arautzen duen lizentzia berarekin egin behar da.



Aitortu – Ez Komertziala – Lan Eratorririk Gabe (by-nc-nd): Ezin da jatorrizko obra merkataritza helburuetarako erabili, eta ezin da hori erabiliz beste obrarik sortu.



Aitortu – Partekatu Berdin (by-sa): Jatorrizko obra edo hori erabiliz sortutako beste obra batzuk merkataritza helburuekin erabil daitezke, baina sortutako obren banaketa jatorrizko obra arautzen duen lizentzia berarekin egin behar da.



Aitortu – Lan Eratorririk Gabe (by-nd): Obra merkataritza helburuetarako erabil daiteke, baina ezin da hori erabiliz beste obrarik sortu.

CC lizentziei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, orrialde ofiziala bisita dezakezu³.

³ http://creativecommons.org/licenses/?lang=es_ES